

Piztia beti da *bestia*



BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
IRAKASLEA ETA IKERTZAILEA

Facebook-eko *Hondarbiko Hitzak* orrialdeak bertako hitz, esamolde eta abarrak argitaratzen ditu tar- teka. Arrakastatsua da; post-ek erreak- zio andana sortu ohi dute herritarren artean.

Behin irakurritakoaren arabera, gaz- telaniaz ohikoa den esaera zaharra ho- nela esaten da Hondarrbian: “Pittittua ikusita mutilla”. Uste dut esanahia argi dagoela. Lagunei esan nien gustatu zi- tzaidala, horrela, bustidura eta guzti, eta nire euskal atsotitzen erreper- torio urrian sartuko nuela. Berehala txar- retsi zidaten proposamena, algara artean: “Ondo dago, bai... *Hazte oir*-en hur- rengo kanpainako eslogana izateko! Kar, kar!”. Orduan konturatu nintzen ez dela oso baliabide garaikidea, eta geroztik ez dut ia erabiltzen.

Pasa den astean neuri bururatu zi- tzaidan atsotitz berri bat, Jean-Paul Sartre- ren esaldi hura egokituta: “Piz- tia beti da *bestia*”. Aproposa iruditu zi- tzaidan norbere ardura asumitu ez eta besteari dena leporatzeko joera adie- razteko.

Zenbat esaera zahar-berri
sortu ditugu euskaraz?
Horietako zenbatek
biziraun dute eta noraino
hedatu dira?
Gutxi, bakanen bat

Gustura geratu nintzen ideiarekin, baina bat-batean gogora etorri zitzaidan Eneko Bidegainen iazko txio bat: euskal hedabideei errieta egiten zien *Oro ez da urre* atsotitza hainbeste erabiltzeagatik. Izan ere, ez da “euskal esaera bat” eta, are, “ez da existitzen”, irakasle lapur- raren iritziz.

Pena da, bada. Izan ere, zenbat esa- era zahar-berri sortu ditugu euskaraz? Horietako zenbatek biziraun dute eta noraino hedatu dira? Gutxi, bakanen bat. Gure erresonantzia-kutxa txiki-hausko- rekin, ez sinestekoa da *Oro ez da urre*

atsotitzak urratu duen ibilbidea, eta ba- rra-barra erabiltzen da gaur egun, Bide- gainek berak aitortu bezala. Barra-barra erabiltzen da, baina “ez da existitzen”.

Eta hasi nintzen bueltaka, “piztia beti da *bestia*”, “piztia beti da *bestia*”... Haste- ko, argi dago gaztelaniaz jakin ezean ez dela hitz joko ulertzen, eta gure Iparral- deko anai-arreba askok ez luketela bere osotasunean gozatuko esamoldeaz. Gai- nera, ez dezagun ahaztu ez duela idaz- kera forma estandarra errespetatzen. Hau da, euskalkian dagoela esaldiaren zati bat. Eta ez dugu enegarrenez alfe- rrik hauspotuko azkenaldiko euskalkien eta batuaren arteko gatazka. A, eta ez dut ahazten jatorrizko forma erdarazkoa dela, aitortzen dut. Beraz, niri burura- tutakoa ez da “euskal esaera bat”, “ez da existitzen”.

Etsipen puntu batekin, azkenerako pentsatu dut nire atsotitz berria bazter- tzea, eta aurrerantzean ere erdarazkoak erabiltzen segitu dut; aurretik, noski, “esaten den bezala” gehituta nire burua salatuz.

Baina hori, piztia beti da *bestia*. ●